

Euskalingua 11

Aurkezpena

Irakurle hori,

Euskalingua 11 honek sei artikulua eskaintzen deuskuz; eurotarik hiru, Ibon Coterónena, Mitxel Kaltzakortarena eta Iñaki Gaminderena, hain zuzen, jarraipeneoak dira.

Eneko Barrutiak *Mundakako arrantzaleei egineko grabazioen transkripzioa* izeneko artikulua aurkezten deusku. Bermeoko grabazioen transkripzioarekin hasitako harilari jarraituz, arrantza langintzako lexiko berezituaren barri zehatza aurkitu dagikegu bertan.

Coterónek *Apuntes de filosofía del euskara* tituludun hiru artikuluko segidaren bigarren atala eskaintzen deusku; lehenengoa *Euskalingua 10*ean dago irakurgai. Bigarren honetan intonazioaren inguruko gogoeta eginez, hizkuntzara aurreiritzi gramatikalak baztertuta hurreratzeko proposamena egiten dau. Agustín García Calvok gaztelaniarako egindako analisiaren balio unibertsalean oinarrituta, euskarara hedatzen dau eta Fonologia eta sintaxiaren arteko harremanean semantika kontuan hartu beharrekotzat dau.

Mitxel Kaltzakortak, galdegaia dala eta, Altubek proposatutakoaren kontrako adibideak aurkezten ditu. *Euskalingua 10*ean *Galdegaia hasikera perpausetan (I) Hamaika abere ipuin* eta *Bizkaiko herri-alegia* liburuetan landutakoa, hau da, galdegaia aditz aurrean barik atzean erabilten dala hasiera perpausetan erakusteko analisia, oraingoan *Amattoren uzta* delakoan aztertzen dau, lehenengoan mendebaldeko mintzamolde ereduaren azterketa egiten baeban, bigarrean iparraldeko mintzamolde ereduaren adierazgarri bat aztertzeke.

Iñaki Gamindek *Euskalingua 9n* aurkeztu eban artikulua jarraipena da oraingoa, *Olgetan-Benetan: Umezaroaren Lexikoa Bizkaian (II)*, bertan nagusiek umeei kantetakoak edo errezitadutakoak irakurri daitezke, herriz herri batutako barianteak eskaintzen

ditu. Nagusi batzuei ume denboran entzundakoak gogoratzeko balio leikie, beste batzuei inoiz entzun bakoak ikasteko, haurtzaindegietan eta eskoletan erreperitorioa zabaltzeko; edozein kasutan, bilketaren balioaz gain, erabilgarritasunarena dauan materiala eskuratzen deusku.

Nagore Etxebarriak testu zaharren analisia egin dau; Frantziskotarren Ordenaren artxibo-ondarera jo eta, autorearen esanetan, osorik dagozan eskuizkribu guztietarik zaharrena, 1708koa, aukeratu dau. Hasteko, azterketa linguistikoa, grafia, morfologia sintaxia, lexikoa, ondoren, jatorrizko edizioaren transkripzioa, transkripzio gaurkotua eta, azkenik, benetako bitxia eskaintzen deusku, eskuizkribuaren faksimilearen kopia. Orain dala 300 urteko euskeraren testigantza.

Aholab taldeak *Epe laburreko ezaugarri prosodikoaren eraginkortasuna hiztuna egiaztatzeke* izeneko artikuluan, hiztuna identifiketako erabilten diren baliabideen hobekuntza proposatzen dau. Ohikoa den espekro-inguratzaileaz gain, hizlariaren prosodian, hau da, intonazioan, energian eta abiaduran oinarritutako datuak gehitzeak izan dagiken onura aztertzen dau, bata eta bestearen arteko erkaketa eginez. Sistema elektronikoko bidezko eragiketetan, norbere burua hurrunetik gero eta zehatzago identifiketako direnez, era honetako ikerketak eragina izan dagikee.

Bertoko artikuluren bat edo gehiago gustoko izango dozulakoan, agurtzen zaitut.

Maribi Unamuno, editorea

victoria.unamuno@ehu.es